



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Gazteak eta finantzei buruzko hezkuntza eta kudeaketa

EUSKADI 2025

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Gazteak eta finantzei buruzko hezkuntza eta kudeaketa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2026ko urtarrila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Gonizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena, diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Oharra: Argitalpen honen gaztelaniako bertsioa ere eskuragarri dago.



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, Creative Commons-en lizentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabeko 4.0 Unported (informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)





Edukia

Helburua eta metodologia

Aurreztea eta aurrezteari buruzko iritziak

Diru-kudeaketa

Finantza-heziketa informala eta arautua

Finantza-gaiekiko interesa

Finantza arloko gaiak eta kontzeptuak ezagutzea

Finantza-produktuak: kontuak, txartelak, aseguruak, maileguak, aurrezki- eta inbertsio-produktuak

Azken astean eta azken urtean egindako finantza-kudeaketak

Inbertsioak: kudeaketak eta lehentasunak

Ondorioak

Helburua eta metodologia

Ikerketaren helburua

Euskadiko 18-34 urteko gazteek finantzei buruz duten interesa eta ezagutza neurtzea. Halaber, gazteek zer finantza-produktu dituzten eta zer kudeaketa-mota egiten dituzten ikustea.

Metodologia

2025eko urrian bildutako datuak, Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko 2.741 gazteri egindako telefono bidezko elkarrizketak eta online galdetegi autoadministratua uztartzen dituen inkesta baten bidez.

Datuen analisia

Sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera haztatutako datuak. Ikerketaren diseinuak eta analisiak emaitza esanguratsuak eta fidagarriak bermatzen dituzte, $\pm 1,9\%$ ko errore-marjinarekin.

Ikerketaren diseinua, analisia eta emaitzen sintesia

Gazteen Euskal Behatokia.





Aurreztea

Hiru gaztetik batek jasotzen duenaren % 50 baino gehiago aurrezten du (% 32,4)

Gazteen % 32,2k hileko diru-sarreraren % 25 baino gutxiago aurrezten du, beste % 33,0k diru-sarreraren % 25 eta % 50 bitartean, eta % 32,4k hileko diru-sarreraren % 50 baino gehiago. Gainerako %2,4ak ez du erantzun.

Emantzipatutako gazteak (gastu gehiagori aurre egin behar dietenak), langabezian daudenak eta, batez ere, atzerrian jaiotakoak dira gutxien aurrezten dutenak (etorkinen artean gehienek hileko diru-sarreraren % 25 baino gutxiago aurrezten dute).

Gazteak nahiko aurreztaileak direla uste dute (0-10 artean, 7,6an kokatzen dira, batez beste)

Otik 10erako eskala batean, non 0 batere aurreztailea ez eta 10 oso aurreztailea baitira, gazteria 7,6an kokatzen da, batez beste.

Aurrezten den diru-sarreraren portzentajea handitu ahala, handitu egiten da aurrezkiaren 0-10 eskalan beren buruei ematen dieten puntuazioa: hileko diru-sarreraren % 25 baino gutxiago aurrezten dutenek 6,1ean kokatzen dute beren burua, % 25 eta % 50 artean aurrezten dutenak 8,0an kokatzen dira, eta % 50 baino gehiago aurrezten dutenak 8,8an kokatzen dira.

Gazteek aurrezteari buruz dituzten iritziak

Hiru gaztetik batek adierazi du nahiago duela gaur egun gozatu, etorkizunerako aurreztu baino (% 32,3)

Hala ere, gehienak ez daude ados ideia horrekin (%60,9). Gainerako %6,8ak ez du iritzirik eman.

Ez dago iritzi-desberdintasun nabarmenik sexuaren, adinaren, lanbidearen edo emantzipazioaren inguruko egoeraren arabera.

Gutxien aurrezten duten gazteak (hileko diru-sarreraren %25 baino gutxiago) dira orainaz gozatzeko filosofiaren aldekoenak (%40,9). Aldiz, diru-sarreraren %50 baino gehiago aurrezten dutenak dira, etorkizunera begira aurreztearen gaineratik, gaur egun gozatzeko ideia gutxien defendatzen dutenak (%24,1).





Diru-kudeaketa

18 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik bederatzik beren dirua ongi kudeatzeko gai direla uste dute (%88,9)

Gehien aurrezten duten gazteak dira beren dirua ondo kudeatzeko gai direla gehien uste dutenak. Bere diru-sarreraren % 50 baino gehiago aurrezten dutenen artean, % 94,7k kudeatzaile ontzat jotzen dute bere burua; % 25 baino gutxiago aurrezten dutenen artean, berriz, ehunekoa % 79,0ra jaisten da.

Gazteen % 22,7k diru-sarrerak eta gastuak kontrolatzeko aurrekontuak egiten dituzte, beti edo sarritan

Beste %41,0k batzuetan egiten ditu aurrekontuak, eta %35,0k onartzen du ez dituela inoiz edo ia inoiz egiten.

Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuak egiteko ohitura hedatuago dago emantzipatutako gazteen artean (horien % 29,9k egin ohi ditu). 25 urtetik beherakoek aitortzen dute gehien inoiz ez dituztela egiten (% 41,2).

Diru-kudeaketari buruzko heziketa informala

Gurasoak dira gazteei gehien irakatsi diotenak beren dirua kudeatzen

Gazteen % 65,3k adierazi du bere dirua kudeatzen gehien irakatsi diotenak bere gurasoak direla.

Bigarren informazio- eta ezagutza-iturria, lehenengotik oso urrun, Internet eta sare sozialak dira

Gazteen % 8,4k adierazi du diruaren kudeaketari buruz gehien irakatsi diotenak sare sozialak, influencerrak eta/edo Interneten eskuratzen duen informazioa direla.

Soilik %2,7k aipatu du ikasketa-zentroa dela diru-kudeaketari buruzko informazio iturri nagusia





Finantza-hezkuntza arautua

Lau gaztetik batek diru-kudeaketaren gaia jorratu du noizbait bere ikasketa arautuetan (% 27,3)

25 urtetik beherakoek gehiago landu dituzte gai horiek (% 31,7).

Gazte gehienek (% 93,2) uste dute komenigarria litzatekeela ikasle guztiei finantza-hezkuntza ematea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH)

Eta % 89,5ek uste du derrigorrezko hezkuntzaren ondoko mailetan ere eman beharko litzatekeela (Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean)

Ez dago alderik sexuaren, adinaren, lanbidearen, ikasketa-mailaren, emantzipazioarekiko egoeraren edo aurrezki-mailaren arabera.

Finantza-gaiekiko interesa

Bost gaztetik bati asko interesatzen zaizkio finantza-gaiak (% 19,4)

Nahikoa interes dutenak (% 34,8) gehituta, esan dezakegu gazteen erdiak baino gehiagok finantza-gaiekiko interesa duela (% 54,2k interes handia edo nahikoa du).

Bestalde, % 28,5i nolabait interesatzen zaizkio eta % 16,6ri gutxi edo ezer ez.

Gizonak emakumeak baino interesatuago daude finantza-gaietan

Gizon gazteen % 58,9ri eta emakume gazteen % 49,7ri asko edo nahikoa interesatzen zaizkie gai horiek.

Azken urtean 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 16,8k parte hartu du finantzen edo finantza-hezkuntzaren inguruko webinarren batean, gai horri buruzko bideoen bat ikusi du edo podcasten bat entzun du

Gizonek emakumeak baino neurri handiagoan burutu dituzte ekintza horiek (% 23,0 eta % 10,2, hurrenez hurren), baina gehien egin dituztenak finantza-gaietan interes handia duten gazteak izan dira (% 36,5).





Finantza arloko gaiak ezagutzea

Gazteen % 17,6k bakarrik uste du finantza-gaiei buruz duen ezagutza-maila orokorra altua dela, bere adineko beste pertsona batzuekin alderatuta

Gazteen erdiek adierazi dute ezagutza-maila ertaina dutela (% 49,4).

Eta % 28,3k aitortzen du finantza-gaiei buruz duen ezagutza-maila baxua dela.

Gizonek finantza-gaiei buruz adierazten duten jakintza-maila emakumeek adierazitakoa baino handiagoa da

Beren ezagutza-maila altua dela dioten ehunekoa % 24,2koa da gizon gazteen artean, eta % 10,4koa emakume gazteen artean.

Gai horiekiko interesa handitu ahala, ezagutza ere handitu egiten da

Finantza-gaietan interes handia duten gazteen % 43,0k dio ezagutza-maila altua duela.

Finantza-kontzeptuen ezagutza


Gazte gehienek badakite zer diren kontzeptu hauek: BEZa, IBAN kodea, PFEZa, inflazioa, abalak, kriptomonetak, zor publikoa eta KPIa.

Ezagutza portzentajeetan dauden aldeak oso nabarmenak dira. Gazteen %90ek baino gehiagok daki zer diren BEZa (%95,7) eta IBAN zenbakia edo kodea (%91,4). Aldiz, erdiak pasatxok daki zer den KPI (%54,9).

Gazteen erdiek baino gutxiagok dakite zer diren Ekonomia Ituna (% 43,8) eta Euriborra (% 42,0). Eta are gutxiago dira interes simple eta konposatua (%33,5) edo ITN eta UTB (TIN eta TAE) zer diren dakitenak (%27,3).

Nolanahi ere, gazte gehienek zerbait entzun dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, kontzeptu horiei buruz.

18-34 urteko gazteek hainbat kontzepturen gainean duten ezagutza-maila (%)





Proposatutako finantza-kontzeptu guztien ezagutza

Hamar gaztetik batek baino ez daki planteatutako kontzeptu guztiak zer diren (% 10,7)

Planteatutako kontzeptu guztiak ezagutzen dituztela diotenen ehunekoa handiagoa da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino (% 14,4 eta % 6,8, hurrenez hurren).

Lanean ari diren gazteek ikasleek baino neurri handiagoan ezagutzen dituzte (lanean ari direnen % 12,4k kontzeptu guztiak dakizkitez; ikasten ari direnen artean, % 8,1ek).

Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat jotzen duten gazteen artean, kontzeptu guztiak ezagutzen dituztenen portzentajea %18,8ra iristen da.

Planteatutako kontzeptu guztiak ezagutzen dituzten gazteen ehuneko handiena finantza-gaietan interes handia erakutsi dutenen artean (%26,2), bai eta beren ezagutza-maila altua dela diotenen artean ere (%35,0) jaso da; hala ere, ez dira gehiengoa izatera iristen.

Finantza-produktu ohikoenak: kontuak eta txartelak

la gazte guztiek (%96,2) dute banku-konturen bat (gazte kontua, nomina kontua, etab.)

Adinaren arabera ez dago alderik. 18-19 urte bitartekoen artean ere, %90ek baino gehiagok banku-konturen bat du.

Eta %86,4k txartel-motaren bat du lotuta, kreditu-txartelen bat edo zordunketa-txartelen bat

Zehazki, %57,3k zordunketa-txartela dute eta %51,4k kreditu-txartela. Gazteen %22,3k bi txartel-motak ditu.

Gizonek zordunketa-txartel gehiago dituzte, kreditu-txartelak baino; emakumeek, aldiz, kreditu-txartelak dituzte gehiago.

Adinak gora egin ahala, bi txartel motak dituztenen portzentajeak ere gora egiten du.

Kontuak edo txartelak dituzten gehienek gutxienez hilean behin berrikusten edo kontsultatzen dituzte izandako mugimenduak (%86,7)





Aseguruak eta maileguak

Gazteen heren batek baino gehiagok (% 37,9) asegururen bat du kontratatua (etxea, ibilgailua, bizitza, heriotza, etab.)

Beren izenean asegururen bat duten gazteen ehunekoak handitu egiten da adinak aurrera egin ahala, eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean gehiengoa dira (%64,1). Emantzipatuen artean ere gehiengoa dira asegururen bat dutenak (%63,9).

Eta bost gaztetik batek (% 20,2) maileguren bat du kontratatua, hipoteka-mailegua edo mailegu pertsonala

Ohikoagoa da hipoteka-mailegu bat izatea (gazteen %15,4k du) mailegu pertsonal bat izatea baino (%6,9).

Adinak gora egin ahala, handitu egiten da hipoteka-maileguak nahiz mailegu pertsonalak dituztenen ehunekoak (%40,7 eta %13,3, hurrenez hurren, 30-34 urteko pertsonen artean). Emantzipatutako gazteek emantzipatu gabekoek baino neurri handiagoan dituzte bi mailegu motak kontratatuak.

Aurrezki- eta inbertsio- produktuak

Gazteen % 15,4k badu erretirorako aurrezteko diseinatutako finantza-produkturen bat (pentsio-plana edo BGAE)

Adinak gora egin ahala, pensio-planen bat edo antzekoren bat duten gazteen ehunekoak ere gora egiten du (30-34 urte bitartekoen artean, %31,9).

Gazteen % 13,7k etxebizitza-kontua du

Kasu horretan, portzentajerik altuena 25-29 urte bitarteko gazteen artean jaso da (%23,1).

Gazteriaren % 21,3k errenta aldakorreko akzioak eta/edo inbertsio-funtsak ditu; % 9,3k, berriz, bonuak, obligazioak, letrak edo errenta finkoko beste inbertsio-produktu batzuk; eta % 8,9k kriptomonetetan inbertitu du. Guztira, gazteen %27,7k du inbertsio-produkturen bat.

Gizonek emakumeek baino gehiago inbertitzen dute horrelako produktuetan.

Finantza-gaietan interes handia duten gazteak dira errentagarritasun aldakorreko produktuetan gehien inbertitu dutenak: %35,1ek errenta aldakorreko akzioak edo funtsak ditu, eta %21,6k kriptomonetak.





Finantza-produktuei buruzko zalantzak

Gurasoak dira gazteen baliabide nagusia finantza-gaiei edo finantza-produktuei buruzko zalantzak dituztenean (% 68,6)

Norengana jotzen duzu finantza-gai edo finantza-produkturen bati buruzko zalantzak badituzu? *



Azken astean egindako finantza-kudeaketak

Gazte gehienek aplikazioak edo txartelak erabili izan dituzte inkestaren aurreko astean ordainketak egiteko

Gazteen %83,9k bizum-en bat egin du inkestaren aurreko astean.

%65,4k saltokiren batean txartel fisiko batekin ordaindu du, dela kreditu-txartela, dela zordunketa-txartela.

%57,9k saltokiren batean sakelako telefonoarekin ordaindu du.

%45,3k kutxazain automatikoren bat erabili izan du dirua ateratzeko.

Gazteen %3,5ek baino ez du adierazi aurreko astean ez duela aipatutako kudeaketetako bat ere egin.





Azken urtean egindako finantza-kudeaketa ohikoena

Gazte gehienek transferentziaren bat egin dute azken urtean (%82,9)

Gazteen erdiek kutxazain automatikoren bat erabili dute dirua sartzeko (%52,6)

Eta erdiak dira, era berean, banku-sukurtsal batera kudeaketaren bat egitera bertaratu direnak (%51,2)

Ez dira erdiak izatera iristen ordainagiriren bat helbideratu dutenak (%45,0)

Emantzipatutako gazteek adierazi dute gehien transferentziak egin dituztela, banku-sukurtsaletara joan direla kudeaketak egitera eta ordainagiriak helbideratu dituztela.

Bestalde, atzerrian jaiotakoak dira kutxazain automatikoak dirua sartzeko gehien erabili dituztenak (%62,0).

Azken urtean egindako beste finantza-kudeaketa batzuk

Gazteen %24,7k aseguruaren bat kontratatu du

%20,4k epekako ordainketa duen zerbait erosi du

%14,4ak kudeatu du bere zergen ordainketa (PFEZ, BEZ, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga...) gestoria edo aholkularitza baten bidez

%11,3k mailegu bat eskatu du (pertsonala, hipoteka-mailegua...)

30 eta 34 urte bitarteko gazteek, lan egiten dutenek eta emantzipatuta daudenek adierazi dute gehien aseguruak kontratatu dituztela, maileguak eskatu dituztela eta gestorietara jo dutela zergak ordaintzeko.

Bereziki nabarmena da gestorietara edo aholkularitza-bulegoetara jotzen dutenen ehunekoa beren kontura lan egiten duten gazteen artean (%40,9).

Emantzipatutako gazteek eta 30 eta 34 urte bitartekoen ere batez bestekoa baino epekako ordainketa dakarten erosketa gehiago egin dituzte, baina kasu honetan atzerrian jaiotakoak nabarmentzen dira (horien artean, epeka ordainduko den zerbait erosi dutenen ehunekoa %40,4ra iristen da).





Inbertsioarekin lotutako kudeaketak

18-34 urteko gazteen % 22,4k inbertsio-produkturen bat (aurrezki-plana, funtsak, akzioak, bonuak, etab.) kontratatu du edo horrelako produktuekin gestioaren bat egin du azken urtean

Ehunekorik altuenak talde hauetan jaso dira: gizonen artean, 25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, Euskadin jaiotakoaren artean, lan egiten dutenen artean, unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, bere burua gizarte-klase altukotzat edo ertain-altukotzat jotzen dutenen artean, hileko diru-sarreraren %50 baino gehiago aurrezten dutenen artean, eta, batez ere, finantzetan interes handia dutenen artean.

Azken urtean aurrezki- eta inbertsio-produktuekin lotutako kudeaketaren bat egin dutenen ehunekoak nabarmen igotzen dira honako talde hauetan:

- Bonuak, obligazioak, letrak edo errenta finkoko bestelako inbertsio-produktuak dituztenen artean (%69,7)
- Akzioak eta/edo errenta aldakorreko inbertsio-funtsak dituztenen artean (%61,0)
- Kriptomonetak dituztenen artean (%53,6)
- Pentsio planak edo BGAEak dituztenen artean (%41,5)
- Etxebizitza-kontua dutenen artean (%41,4)

Lehentasunak inbertsioei begira

Inbertitzea planteatuz gero, Euskadiko gazteek inbertitutako dirua berreskuratzeko segurtasunari lehentasuna emango liokete errentagarritasunaren gainetik

Une honetan dirua izango bazenu eta inbertsio-produkturen batean inbertitzea erabakiko bazenu, alderdi hauetako zeini emango zenioke garrantzi handiena? Eta bigarrenik?





Gazte inbertitzaileen lehentasunak

Azken urtean inbertsio-produkturen bat (aurrezki-plana, funtsak, akzioak, bonuak, etab.) kontratatu edo kudeatu duten gazteek ere segurtasuna lehenesten dute

Pertsona horien artean, garrantzi handiena ematen dieten gaien ordena gazteria osoan erregistratutakoaren berbera da.

Errenta finkoko inbertsio-produktuak (bonuak, obligazioak, letrak, etab.) dituzten gazteen lehentasunak errenta aldakorreko inbertsio-produktuak (akzioak) dituzten pertsonen berberak dira

Bi kasuetan, lehentasuna ematen zaio hasieran inbertitutako dirua berreskuratzeko bermeari, eta, ondoren, dirua edozein unetan eskuratzeko malgutasunari.

Kriptomonetak dituzten pertsonak pixka bat gehiago arriskatzen dira

Horientzat, alderdirik garrantzitsuena inbertitutako dirua berreskuratzeko bermea da, baina bigarren alderdi garrantzitsuena errentagarritasun handia lortzea da, nahiz eta arrisku handia izan.

Ondorioak I: finantza-heziketa eta - ezagutza

18 eta 34 urte bitarteko gazte gehienek uste dute beren **dirua** ongi kudeatzeko gai direla (%88,9), eta adierazi dute beren **gurasoek** irakatsi dietela gehien finantzei buruz (%65,3). Izan ere, finantza kontuei buruzko zalantzak dituztenean batez ere gurasoengana jotzen dute (%68,6).

Lau gaztetik batek baino ez ditu gai horiek jorratu **ikasketa arautuetan** (%27,3). Gazte gehienek finantza-hezkuntza handiagoa eskatzen dute, bai derrigorrezko hezkuntzan (%93,2), bai derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketetan (%89,5).

Gazteen erdiek **interes** handia edo nahikoa dute finantza-gaietan (%54,2). Eta uste dute gai horiei buruzko duten **ezagutza-maila** ertaina dela, bere adineko beste pertsona batzuekin alderatuta (%49,4).

Gazte gehienek badakite zer diren honako **kontzeptu hauek**: BEZa (%95,7), IBAN kodea (%91,4), PFEZ (%81,4), inflazioa (%80,1), abalak (%74,7), kriptomonetak (%68,7), zor publikoa (%65,1) eta KPI (%54,9).

Gazteen erdiek baino gutxiagok dakite zer diren Ekonomia Ituna (%43,8) eta Euriborra (%42,0). Eta are gutxiago interes simple eta konposatua (%33,5) edo ITN (TIN) eta UTB (TAE) (%27,3) zer diren dakitenak.





Ondorioak II: finantza-produktuak

la gazte guztiek dute banku-konturen bat, dela gazte-kontua, dela nomina-kontua, etab. (96,2%). Eta %86,4k **txartel** motaren bat dute lotuta, kreditukoa edo zordunketakoa.

Horri lotuta, ikusten dugu gazte gehienek app-ak edo txartelak erabili dituztela inkestaren aurreko astean ordainketak egiteko. Eta azken urtean, gehienek transferentziaren bat egin dute eta banku-sukurtsalen batera joan dira gestioaren bat egitera.

Gazteen heren batek baino gehixeagok (%37,9) **asegururen bat** du kontratatua (etxea, ibilgailua, bizitza, heriotza, etab.). Eta bost gaztetik batek (%20,2) **mailegu bat** du kontratatua, dela hipoteka-mailegua, dela mailegu pertsonala. Gainera, gazteen % 15,4k badu **erretirorako** aurrezteko diseinatutako finantza-produkturen bat (pentsio-plana edo BGAE). Eta gazteen %13,7k **etxebizitza-kontua** du, etorkizunean etxebizitza bat erosteko aurrezteko pentsatua.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonak dira mailegu, aseguru eta pensio-plan gehien dituztenak. Etxebizitza-kontuak, aldiz, ohikoagoak dira 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean.

Ondorioak III: inbertsioak

Inbertsio-produktuei dagokienez, 18-34 urteko gazteen % 27,7k mota horretako produkturen bat du: % 21,3k akzioak edo errenta aldakorreko inbertsio-funtsak ditu; % 9,3k bonuak, obligazioak, letrak edo errenta finkoko bestelako inbertsio-produktuak; eta % 8,9k kriptomonetetan inbertitu du.

Azken urtean, gazteen % 22,4k inbertsio-produkturen bat (aurrezki-plana, funtsak, akzioak, bonuak, etab.) kontratatu du edo gestioaren bat egin du. Errenta finkoko edo aldakorreko inbertsio-produktuak edo kriptomonetak dituztenen artean, gehiengo dira azken urtean horrelako produktuekin kudeaketaren bat egin dutenak.

Inbertitzeko orduan, **gazteek lehenetsia ematen diote inbertitutako dirua berreskuratzeko bermeari**, errentagarritasun handiaren gainetik, baita errenta aldakorreko inbertsio-produktuak dituzten gazteek ere. Gehien arriskutzen diren pertsonak kriptomonetak dituztenak dira, baina gazte horiek ere segurtasuna lehenesten dute.





Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco